



ORIOKO HILERRIKO SEI PANTEOIREN GAINeko ESKUBIDEEN ADJUDIKAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK.

1.- SARRERA

Baldintza-agiri honek Orioko hilerriko sei panteoiren gaineko eskubideak adjudikatzeko prozedura arautuko du.

Udala da hilobion jabea, eta hala jarraituko du izaten hilobien gaineko eskubideak eman ondoren, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 79. artikuluan esaten baitu hilobiak herri jabetzako ondasunak direla, herri zerbitzuari atxikita daudelako, toki erakundearen ardurapean dauden eginkizun publikoak betetzeko erabili behar baitira, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 74. artikuluan jasotakoarekin ere bat etorritik eta kontuan izanda ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Araudiak, bere 4. artikuluan esaten duela Udalaren eginkizun publikoak betetzeari atxikitako ondasunen artean daudela udal hilerriak.

Hortaz, 7/1985 Legearen 80. artikuluekin bat etorritik, ondasun horiek, kontzesioan adjudikatzeko prozedura hau gorabehera, besterenduezinak, bahiezinak eta preskribaezinak izango dira.

Kontzesio honetako herri jabetzako ondasunek erabilera pribatiboa izango dute: Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Araudiko 75.2 eta 78. artikuluen arabera, partikularrek herri jabetzako zati bat okupa dezakete, beste interesatuen erabilera mugatuta edo debekatuta gelditzen delarik, eta erabilera pribatibo horretarako administrazio kontzesioko prozedura bat behar da, baldintzen orri hauetan garatu beharrekoa bezalakoa. Kontzesioak, gehienez ere, 99 urte iraun dezake, araudi horretako 79. artikuluen arabera: Hemen araututako kontzesioak 50 urte iraungo du, Udalak hala erabaki duelako, eta baliteke beste 49 urtez luzatzea, garaia datorrenean Udalak ez badu egokitzen jotzen herri jabetzako ondasunak berreskuratzea.

2.- BALDINTZA JURIDIKOAK

Lehena: kontzesioren edukia

Adjudikazioaren gaia honako panteoi hauen eskubideak izango dira, kontzesio administratiboaren erregimenean:

- 65. zenbakidun panteoia
- 66. zenbakidun panteoia
- 67. zenbakidun panteoia
- 68. zenbakidun panteoia
- 69. zenbakidun panteoia
- 88. zenbakidun panteoia

Adjudikazio hauek, nolanahi ere, salbu utziko dute jabetza eskubidea eta ez diote kalterik sortuko hirugarrenei, jabetza publikoko ondasunak baitira.



ORI-KO UDALA



Baldintza juridiko eta ekonomiko-administratibo hauen berri emango zaio jendeari, horretarako irekiko den hogeita hamar eguneko epea.

Udal Hilerriko arautegiaren 39. artikulua arabera, adjudikazioa egin eta dagokion zerga ordenantza fiskalean ezarritako tasaren arabera ordaintzen denean hasten da hilobiaren erabilera.

Bigarrena: Panteoien gaineko eskubideen kontzesioak adjudikatzeko prozedura.

I. Deialdia jendaurrera ateratzea:

Deialdi hau jendaurrera ateratzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, orio.eus udalaren atarian, Oriko iragarki tauletan eta Karkara aldizkarian ezarriko dira iragarkiak.

II. Eskabideak aurkezteko epea:

Lehiaketan parte hartzeko eskabideak iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita sei lanegun iragan baino lehen aurkeztu beharko dira.

III. Eskatzaileen betekizunak:

Edozein lagunek parte har dezake adjudikazioan, honako baldintzak betetzen baditu:

1. Gizaki bakarra izatea edo senar-emazteak izatea. Erregistro egokietan jasota dauden ezkondu gabeko bikoteek ere parte har dezakete, senar-emazteak balira bezala.
2. Hemezortzi urte baino gehiago izatea. Senar-emazteak edo ezkondu gabeko bikoteak izanez gero, nahikoa izango da ezkontide edo bikotekideetako batek adin hori izatea. Dena dela, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako izan beharko ditu beteak hemezortzi urteak.
3. Jarduteko gaitasun osoaren jabe izatea eta baldintza-agiri honetako baldintza ekonomikoetan ageri diren kopuruak ordaintzeko gaitasuna izatea.
4. Ezgaiturik, gaitasungabe edo bateraezintasun egoeran ez egotea, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko azaroaren 14ko 3/2011 Errege Lege Dekretuaren 60. artikulua xedatzen duenaren arabera.
5. Familia-unitate bakoitzeko eskabide bakarra onartuko da.

Adjudikazioan parte hartzeko ezinbesteko betekizuna ez bada ere, Oriko udalerrian bizi direnek lehentasuna izango dute zozketan.

IV. Eskabideak aurkezteko modua:

Eskabideak Udalak prestatutako eredu ofizial normalizatuaren arabera izango dira (eredua baldintza orri hauen eranskinean ageri da). Dohainik eskuratu ahal izango dira udal bulegoetan. Eskatzaileak berak eta bakarrik sinatu beharko du eskabidea; senar-emazteak edo ezkondu gabeko bikotea izanez gero, biek sinatu beharko dute.

Betetako eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira, derrigorrez:



ORIOKUDALA



—Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia edo, legeak hala onartzen duen kasuetan, nortasuna ofizialki egiaztatzeko balio duen beste agiri batena. Fotokopiak behar bezala egiaztatuak izango dira.

—Herri Administrazioen Kontratuei buruzko azaroaren 14ko 3/2011 Errege Lege Dekretuaren 60. artikulua jasotako ezgaitasun, gaitasun-gabetasun edo bateraezintasun kasuetako bat ere ez dagokiola aditzera ematen duen zinpeko aitortpena.

—Lehiaketan bete beharreko baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboak jasotzen dituen agiri hau eta beretatik sortutako betebeharrak, erabat eta inolako eragozpenik gabe onartzen dituela aditzera ematen duen berariazko aitortpena.

Eskabideak Orioko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira –Herriko Plaza, 1–, astelehenetik ostiralera, laneko ordutegian (08:30 – 14:30) edo, bestela, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazio Guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazio prozedurarenak, bere 38.4 artikuluan xedatzen dituen moduetako batean; dagokion funtzionarioak eskabideak aurkezteko epearen barruan jarritako data eta zigilua eman beharko ditu eskabideak.

V. Kontzesioko hilobi bakoitzaren gaineko eskubideak adjudikatzeko prozedura:

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, behin-behineko bi zerrenda egingo dira Udalak kontzesioan emango dituen panteoien gaineko eskubideak eskuratu nahi dituztenen eskabide onartu eta baztertuak. Zerrenda batean Orion bizi direnak agertuko dira eta bestean, Orion bizi ez direnak. Efektu hauetarako, Orion bizi direla kontsideratuko da oinarri hauek onartu diren datarako Orion erroldatuak daudenak.

Zerrenda horiek Udaleko iragarki taulan ikusgai egongo dira hamar lanegunez. Bertan aditzera emango da zein eskabide onartu diren eta zein baztertu, eta zein izan diren baztertzeko arrazoiak.

Gero, beste hamar eguneko epea egongo da erreklamazioak aurkezteko, 30/1992 legearen 71.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Epeak lanegunetan kontatuko dira.

Emandako epean erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrendak berez behin betiko bihurtuko dira. Erreklamaziorik aurkeztuz gero, administrazio izapide egokiak bete ondoren onartu edo atzera botako dira, behin betiko zerrendak onartzen dituen ebazpen batean. Behin betiko zerrendak ere Udaleko iragarki taulan ikusgai jarriko dira.

VI. Panteoien gaineko eskubideen kontzesiok adjudikatzeko modua:

Eskabideak adjudikatu beharreko hilobiak baino gehiago badira, adjudikazioa zozketa bidez egingo da.

Baina eskabideak hilobiak baino gutxiago izanez gero, zozketa bidez ezarriko da aukeratzeko lehentasunaren hurrenkera hilobien adjudakaziodunen artean.

Lehen aipatutako zozketari dagokionez, Orion bizi diren eskatzaileen zerrendetako bakoitzarekin zozketa bat egingo da, eta berdin jokatu da Orion bizi ez direnen zerrendekin.



ORIOKUDALA



Udaleko iragarki taulan onartutakoen behin betiko zerrendak ikusgai jarri eta handik bi lanegunera egingo da zozketa. Udaletxean egingo da, alkatearen edo berak izendatutako udalbatzarkidearen aurrean, udal idazkaria edo egintzaren fede emateko eginkizuna izendatzen zaion funtzionarioa ere bertan dela.

Hirugarrena: Panteoien gaineko eskubidearen kontzesioa adjudikatzen zaionaren eskubideak.

Kontzesioko panteoien gaineko eskubideek honako eskubideez baliatzeko ahalmena ematen diete adjudikaziodunei:

—Panteoia hurrengo 50 urteetan erabiltzea; beste 49 urtez luza daiteke epe hori, baldintza-agiri honetako seigarren oinarrian jasotakoaren arabera. Bera, bere familiakoak, bere lagunak edo karitateagatik onartzen dituenak lurperatzeko erabili ahal izango du.

Arautegiaren 27. artikuluekin bat etorriz, hilobia gorpuak eta giza hondakinak utzi eta gordetzeko baino ezin da erabili, arautegiaren arauak bete behar direlarik.

—Panteoiaren gaineko eskubideari dagokion izendun titulu bat bere izenean eskuratzea edo, senar-emazteak zein bikote ezkongabea izanez gero, bi ezkontideen edo bi bikotekideen izenean; titulua panteoia norbait lurperatzeko erabili behar denean erakutsi beharko da. Bestalde, titulua eskubidearen bermatzailea da. Titulua erregistratu ahal izango du Panteoien titularitateen erregistroan.

Bai tituluan bai erregistroan honako hauek zehaztu beharko dira: Hilobia edo panteoia; jabearen izen-abizenak eta helbidea; onuradunak; egindako eskualdaketak, lurperatzeak, lurpetik ateratzeak eta toki aldaketak (izen-abizenak eta eguna zehaztuta); panteoiko apaindurei buruzko erreferentzia edo agiri grafikoa; eskubideen eta aldizkako tasen mugaegunak eta ordainketak, bai eta hilobian eragina duen beste edozein gorabehera ere.

—Bere hilobiaren gaineko eskubideak «mortis causa» eskuz aldatzea, udal hilerriko arautegiaren 62., 63. eta 64. artikuluetan jasotakoarekin bat.

—Adjudikatutako hilobia berreraiki, aldatu, handitu eta apaintzea edo hari zerbait gaineratzea, lizentzia eskuratu ondoren, udal hilerriko arautegiak ezarritakoarekin bat.

—Jabeek hilobiak Udalari itzultzea, gorpurik edo hondakinik ez badute edo, edukiz gero, beste hilobi batera aldatzen badituzte, jabearen kontura edo Administrazioaren ofizioz, eta horretarako dauden tokietan jarri; Zerga Ordenantzak ezarritako kopuruak ordaindu beharko dira.

Laugarrena: Panteoiaren gaineko eskubidearen kontzesioa adjudikatzen zaionaren betebeharrak.

Panteoien gaineko eskubideen kontzesiok eskuratzen dituztenek honako betebeharrak izango dituzte:

1. Adjudikatutako panteoiaren gaineko eskubidea Udal Erregistroan jasotzea.
2. Dagokion ordenantza fiskalean ezarritako tasak ordaintzea.



3. Udalaren ebazpen bidez adjudikatutako lursailaren edo panteoiaren prezioa edo balioa ordaintzea, panteoien gaineko eskubideak behin-behingo adjudikatu direla jakinarazi eta hogeita hamar lanegun iragan baino lehen. Ebazpen hori Udaleko iragarki taulan jarriko da behin betiko adjudikaziodunen zerrendarekin batera.

Prezioa ez bada emandako epean ordaintzen, adjudikazio eskubidea iraungitzat joko da.

Bestalde, adjudikaziodunak ordaindu beharrekoa ordaintzen ez badu, eskabidean atzera egin duela joko da, behin-behineko adjudikazioa indarrik gabe geldituko da berez eta besterik gabe eta espedientea betiko artxibatuko da.

4. Administrazio aktaren edo notario eskrituraren bidez, hilobiaren gaineko eskubidearen onuradun bat, eta nahi izanez gero ordezkari bat ere, izendatzea, jabea hiltzen denerako. Onuraduna behartuta dago ondoren hilobiaren gaineko eskubidea Oriko Udalaren aurrean bere izenera aldatzera, kausatzailearen herentzian agindutakoa betez.

5. Tituluan edo titulua erregistratuta dagoen moduan ikusitako hutsak —izena, abizenak edo beste edozein datu oker— zuzentzea, errua egiaztatu eta zuzentzeko arrazoiak eman ondoren.

6. Hilobian egin nahi den edozein lurperatze, lurpetik ateratze edo leku aldaketetarako adjudikazio titulua Oriko Udalean aurkeztea —erregistro liburuan eta tituluan jaso dadin—, jabeak berak

—titulua galdu duelako— eskaera egiten duenean edo jabea lurperatzen denean izan ezik; izendatutako onuraduna edo hilobiaren gaineko eskubidearen oinordekoak izateko eskubidea duten gehienak ados daudenean ere ez da titulurik aurkeztu behar, Udalean interesatuek idatzitako jarraibiderik egonez gero.

Titulua aurkeztea nahikoa izango da Administrazioak ulertzeko jabeak ahaideak edo arrotzak lurperatzeko baimena eman duela, lapurreta, behar ez bezalako atxikipen edo galeragatiko salaketa zortzi egun lehenago aurkeztu ezean.

7. Titulua aurkeztu beharrik ez badu, eskabidea idatziz aurkeztea eta, titulua galdu badu, bikoiztua eskatzea.

8. Adjudikazioa egin eta sei hilabete iragan baino lehen panteoia aldatu edo birgaitzea, bere kontura, panteoiak horrelakorik behar badu. Salbuespen gisa, Udalak erabaki dezake epea luzatzea, egin beharreko obra mota edo obren garrantzia edo kalitatea kontuan izanda.

Panteoiak egun dauden bezala emango zaizkie adjudikaziodunei eta berek arduratu beharko dute kanpotik garbitzeaz eta behar duten beste edozein txukuntze edo konpontze lanez. Panteoiek ixteko harlauzak dauzkate. Panteoia behin betiko ixtea, txukuntzea eta apaintzea adjudikaziodunak egin beharko du, udalaren baimena eskuratuta.

9. Hilerraren barruan erabilitako herri jabetzako zatia eta adjudikatutako lursailean edo hilobian egindako obren multzo arkitektonikoa egoera onean mantentzea, jabearen edo berak izendatutakoaren kargu.

10. Adjudikatutako panteoian zerbait eraiki edo berritu baino lehen udal lizentzia eskatzea, arautegiaren 73. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoarekin bat.



Bosgarrena: Panteoien gaineko eskubideak esleitzen dituen administrazioaren betebeharrak eta eskubideak.

Udalak enkante honetan adjudikaziodun gertatzen direnei hilobia guztiz –eta arautegian ezarritako eran– erabiltzea bermatuko die, eta, gainera, betebeharrak hauek hartuko ditu bere gain:

1. Hilobien eta lursailen erregistroa eramatea, bai eta hilobi bakoitzean egiten diren lurperatze, lurpetik ateratze eta lekualdaketen ere, arautegian xedatutakoarekin bat.
2. Adjudikaziodunari tituluak ematea eta, kasua bada, onuradunari.
3. Jabea hil denik ezin egiazta denean, agiriren bat falta denean edo eskubideak dituzten lagunak ez daudenean, behin-behineko tituluak ematea, dagokion administrazio espedientea egin ondoren.
4. Titulua hondatuz gero, beste titulu bat ematea aurrekoaren ordeztuta, titulua galdu edo lapurtua izanez gero, bikoiztua ematea, jabeak hala eskatuta eta administrazio espedientea tramitatu eta gero.

Bestalde, Oriko Udalak honako jarduketak egiteko eskubideak eta ahalmenak ditu:

1. Panteoiak eta beren gainean egindako obrak Udalari itzuliko zaizkio, kontzesioa bukatutakoan edo lehenago, hilobiaren gaineko eskubidea iraungiz gero, zazpigarren oinarrian xedatu bezala.
2. Hilerrian eskatzekoa den errespetua mantentzen dela zaintzea eta, arautegian ezarritakoarekin bat, adjudikatutako hilobiak eta panteoiak behar bezala mantentzeko ikuskaritza eta kontrol lanak egitea.
3. Mugaeguna baino lehen, kontzesioa balio gabe uztea, herri intereseko bat-bateko arrazoirik egonez gero; adjudikaziodunari egindako kalteak ordainduko zaizkio, bidezkoa izanez gero; kalte-ordainek ezin izango dute, inola ere, adjudikaziodunak kontzesiogatik ordaindutako prezioa baino altuagoak izan.
4. Adjudikaziodunari zehapenak ezartzea, baldin eta arautegian ageri diren betebeharrak arinki, larriki edo oso larriki hausten badituzte.

Seigarrena: Herri jabetzaren gaineko kontzesioak direla eta adjudikatutako panteoien gaineko eskubideen iraupena:

Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Araudiko 79. artikuluan xedatutakoarekin bat, adjudikazioak 99 urte iraungo du, gehienek ere, hilobiaren gaineko eskubidea egiaztatzen duen titulua ematen den egunetik, eta ezin izango da gehiago luzatu; epe horretan kontzesioan utzitako hilobien gaineko eskubideak erabili ahal izango dira.

Hala eta guztiz ere, deialdi honetako hilobien gaineko eskubideen adjudikazioak 50 urte iraungo du eta beste 49 urtez luzatu ahal izango da, Udalak garaia datorrenean kontzesioak luzatzea egokitzen joz gero, lehenengo eta hirugarren oinarrietan jasotakoaren arabera.

Kontzesioaren epea amaituta, erregistroko jabeari hilobiko hondakinak hezurtegiara eramateko eskatuko zaio. Agindutakoa bete ezean, Udalak egingo du, jabearen ordeztuta eta kontura.



ORIOKUDALA



Hilobiak kontzesioren epea amaitu baino lehen itzul dakizkioke Udalari, arautegian jasotako iraungipen kasuetan.

Kontzesio amaituta, panteoietan egindako obra guztiak Udalaren eskuetan geldituko dira.

Zazpigarrena: Herri jabetzaren gaineko kontzesiok direla eta adjudikatutako panteoien gaineko eskubideen iraungipena.

Arautegiaren 69. artikularen arabera, Udalak adjudikatutako panteoien gaineko eskubideak honako arrazoi hauengatik bakarrik jo ditzake iraungitzat:

- a) Jabeak edo oinordekoek eskubideari uko egiten diotelako.
- b) Eraikina hondatuta dagoelako, baldin eta pribatua bada; hondatuta dagoela adierazteko administrazio espedientea behar da.
- c) Hilobia bazterrera utzita dagoelako.
- d) Epeka ordaintzen diren hilobien kasuan, mugaeguna iritsi eta dagokion epea ordaindu ez delako.
- e) Hilobiaren gaineko eskubidearen epea amaitu delako.
- f) Jabea hil denetik hamar urte iragan direlako inolako onuradun edo oinordekok dagokion eskubidea eskatu gabe.
- g) Arauz kontrako lagapenagatik edo hilerriko arautegian jasotakoa ez betetzeagatik.
- h) Arautegi horretan aipatutako tasak —dagokion ordenantza fiskalean kopuru aldetik zehaztuak — ez ordaintzeagatik.

Arautegiaren 71. artikuluan jasotako iraungipeneko administrazio espedientea bideratu ondoren, iraungipenerako arrazoirik dagoela joz gero, Udalari itzuliko zaizkio hilobiaren gaineko eskubideak. Horrela, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuko 70. artikuluan jasotakoa —hau da, Administrazioak edozein garaitan berreskura dezakeela herri jabetzako bere ondasunen edukitzea— betetzen da.

Zortzigarrena: Zehapen araubidea: hutsak eta zehapenak.

Gai honetako zehapen araubide jakinik ez dagoenez, administrazio zehapen araubide orokorra indarrean egon eta ezargarri izango da.

3.- BALDINTZA EKONOMIKOAK

Sei panteoietarako kontzesio administratiboan emandako hileta-eskubideei dagokien tasa, 50 urteko eperako, 10.000 eurokoa izango da.

Azken klausulak

1. Deialdi honetako hilobiak eskatzaileak baino gehiago izanez gero eta, hortaz, panteoi batzuk Udalaren esku geldituz gero, gerora eskatzaile bakoitzari banan-banan adjudikatuko zaizkio



ORIOKODALA



panteoien gaineko eskubideak, bakoitzarekin hasitako administrazio espediente baten bidez, eta ez da beste zozketarik egingo Udalak hilobiak soberan dituen bitartean.

Horretarako, hutsik dauden panteoien zerrenda egingo da eta aldian behin berrituko da, Udalak une bakoitzean herritarrei eskaintzen dizkien hilobien berri emateko.

2. Baldintza-agiri honetan jasota ez dauden kasuetan, honako lege eta arauak beteko dira: Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretua; ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Araudia, eta Orioko udal hilerriko arautegia.

Orio, 2016ko apirila

Udal Idazkaritza